



AKTEA/13

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2026-06-09)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-06-09 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:33
Amaiera-ordua:	08:41
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-06-02 TGB (12)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Sahararen aldeko karabana solidarioa aurrera eramateko Besalde elkarteari 2026ko dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena onartzea.
- 4.- Egurra ateratzeko baimena onartzea, 7 poligonoa, 60 partzela.
- 5.- Mañu auzoan egurra ataratzeko baimena onartzea (Poligono 7. partzelak 168, 191).
- 6.- 2026. Urteko lankidetzak hitzarmena onartzea. Arraun elkartea.
- 7.- 2026. Urteko lankidetzak hitzarmena onartzea. Futbol taldea.
- 8.- Alkatetzak dekretuen berri emotea. Maiatzak 25-29.
- 9.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-06-02 TGB (12)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko ekainak 2ko 12/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.



3.- SAHARAREN ALDEKO KARABANA SOLIDARIOA AURRERA ERAMATEKO BESALDE ELKARTEARI 2026KO DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA BIDERATZEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Xedea

Sahararen aldeko karabana solidarioa aurrera eramateko Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarteari dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2026. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkartearen dirulaguntza nominatiboa jasoten da, eta alkarteari aitaturako dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2026ko apirilaren 1ean, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

Hirugarrena: 2026ko maiatzaren 29an, Udaleko kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. Artikulua, eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) eta s) atalen arabera, alkateari dagokion



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221
Data: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



arren, 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2026. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkaterearen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkatereagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

4.- EGURRA ATERATZEKO BAIMENA ONARTZEA,7 POLIGONOA, 60 PARTZELA.

Xedea

Mañu auzoko 7. Poligonoko 60 partzelan egurraren aprobetxamentua ateratzeko lizentzi eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 26an, J.G.O interesdunak (****8509S), Maderas Arantzariaren izenean, Bermeoko 7. Poligonoko 60 partzelan egurraren aprobetxamendua ateratzeko eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena.- Eskari horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari egindako baimena aurkezten du, honako datuekin:

- Egurraren jabea: T.S.G
- Lekua (Katastroa): 7. Poligonoa: 60 partzela.
- Egur kopurua: 170 metro kubiko.



Hirugarrena.- Udal teknikariek erabiliko diren bideak ikustatu ondoren, argazkiak atera dituzte, eta udal arkitektoaren txostena dago espedientean.

Laugarrena.- Aprobetxamenduaz baliatzen direnek (jabeek) edozein kasutan, bermatu egin beharko dute bidearen egoera zuzena.

Bosgarrena.- Aprobetxamenduaren jabeak, udalak agintzen dituen neurriak hartu beharko ditu.

Seigarrena.- 2026ko ekainaren 2an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- 2020ko urtarrilaren 31n izandako Bermeoko Osoko Bilkuran, Bermeoko Udalaren jabetzapeko edo arduralaritzapeko bideen aprobetxamendu bereziko araua onartu zen (BAO 2020-03-26). Horren hirugarren artikulua arabera:

“Aurretiazko udal lizentzia lortzea beharrezkoa izango da, Udal titularitate edo administraziopeko bideak erabiltzeko.

Zuhaitzak aterako diran lurretako jabeak, edo haren orde, kontratariak edo garraiatzaileak eskatuko dau lizentzia.

Datu honek agertuko dira eskarian:

- a) Eskatzailea, kontrataria edo garraiatzailearen nortasun datuak.*
- b) Garraiaketarako erabiltzen diren ibilgailuen datuak, matrikula, egingo den ostera kopurua, osterrako garraiatuko den zama zehaztuz eta egingo den ibilbidea tokiko planoan adieraziz.*
- c) Garraiatuko den zamaren bolumena estéreo edo metro kubikoetan.*
- d) Garraiaketak hasiko eta amaituko diren egunak.*
- e) Materialea nonbait bilduko bada, non izango den.*
- f) Materialaren jatorria dagoen mendiaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.*



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



g)Zuhaitzak edo zuhaitziak mozteko baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana (Bizkaiko Foru Aldundia, Urdaibai Erreserbako Patronatoa, eta abar).”

Gure kasuan, honakoak aurkeztu ditu interesdunak:

- Eskatzailea: J.G.O (****8509S)
- Ibilgailuak: 5 ejeko kamioiak.
- Zamaren bolumena: 170 metro kubiko.
- Hasiera eta amaiera epeak: 3 hilabete (datarik zehaztu gabe).
- Materiala biltzeko tokia: Ez dago.
- Materialaren jatorria: 7. Poligonoa: 60 partzela.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena: Aurkeztu da
- Espezia: Eukalipto.

Bigarrena.- Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauak 63. artikuluan xedatzen duenez, katalogatu gabeko mendi publikoen eta babesleak ez diren partikularren baso-aprobetxamenduek Nekazaritza Sailaren alde aurreko baimena beharko dute. Sail horri dagokio aprobetxamenduari dagozkion eragiketak behar bezala gauzatzea ahalbidetzen duten baldintza teknikoak ematea, bai eta zuhaitziak birsortzen laguntzeko beharrezkoak diren neurriak adieraztea ere.

Era berean, 64. Artikulua arabera, honakoak izango dira BFAk lizentziak emateko baimenak:

- Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztutako espezieekin populatutako mendi eta baso eremuak direnean: Baimena eskatu denetik 20 egun balioduneko epean, ebazpenik eman ez den kasuetan, lizentzia emana ulertuko da.
- Aurrekoen barnean zehaztutakoak ez diren beste espezie batzuekin populatutako mendien kasuan: Baimena eskatu denetik 60 egun balioduneko epean, ebazpenik eman ez den kasuetan, lizentzia emana ulertuko da.

Aurkeztu da baimena.

Bigarrena.- Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.a)

6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221
Data: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



artikuluaren jasotakoaren arabera, lizentzia emoteko ahalmena alkateari dagokio, baina 2026ko otsailaren 26ko 1131 Zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioaren ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetuta dago.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko maiatzaren 26an, J.G.O interesdunak (****8509S), Maderas Arantzaren izenean, Bermeoko 7. Poligonoko 60 partzelan zuhaitzak mozteko eta erauzteko egindako baimen eskaria onartzea.

BIGARRENA.- Interesdunari ohartaraztea 1.825,50 euroko fidantza jarri behar duela lanekin hasi aurretik, horren ezean lizentzia eman gabetzat joko baita.

HIRUGARRENA.- Zuhaitzak mozten hasi aurretik, honakoak aurkeztu beharko dira udalean, gainerako baldintzak betetzearen baldintzapean:

- Erabiliko diren ibilgailuen matrikulak.
- Hasiera eta amaiera datak.

LAUGARRENA.- Interesdunari ohartaraztea honako baldintzen betebeharra:

BESTE BALDINTZA BATZUK.-

1. Ezin da erabili:

- Har ibilgailurik.
- Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
- Errodadura bandadun ibilgailurik.
- Geihenezko orotarako pisua 26 tonakoa baina handiagoko ibilgailuri eta **ezingo da hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik erabili.**
- Ibilgailu astunen zirkulazioa, bereziki, lurra, egurra, apeak eta beste material batzuk garraiatzeko erabilitakoaren baimena ematea Udalaren esku geratzen da, beti ere, uneko eguraldiaren arabera.



2. Bideen garbiketa:

- Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamendua irauten duen bitartean beharrezkoan izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostuan haien kontura izanik.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute, bideotatiko zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideotan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurrak, harriak eta abar ere baztertu egin beharko dituzte bidetik segidan.

Materialen karga aprobetxamenduaren terreno barruan egin beharko da, eta inoiz ere ez, udalaren errepide gainean.

3. Konponketa lanak:

- Txosten teknikoak ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanok egiteko epea jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketan egin izango ez balira, Udalak berak egingo dio zeregin honi haren kontura, kostua aldeztu aurretik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza nahikoa izan ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpontzezinak balira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalari.

Udal bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen bidezko banaketa egingo da.

4. Bitartekaritza, itunebidea eta arbitraia:



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta, Udalaren eta erabiltzailearen artean ez balego adostasunik, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna eta kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziotatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.
5. Harrobiak, mehatz ihardurak eta lurak lekuz aldatzea:
- Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurak lekuz aldatzeko erabiltzen badira, iharduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimendu ibilbide guztian arduratuko direnak.
 - Aldiz-aldika bideok ikustatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoak, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako empresa horrek ordaindu beharko dituzte.
6. Aprobetxamenduaren epea:
- **Gehienez ere, maiatzetik urrira arte (biak barne)** jardun ahalko da.

5.-MAÑU AUZOAN EGURRA ATARATZEKO BAIMENA ONARTZEA(POLIGONO 7. PARTZELAK 168, 191).

Xedea

Mañu auzoko 7. Poligonoko 168 eta 191 partzeletan egurraren aprobetxamendua ateratzeko lizentzi eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2026ko urtarrilaren 28an, C.T.P.P interesdunak (**4053G) Mañu auzoko 7. Poligonoko 168 eta 191 partzeletan egurraren aprobetxamendua ateratzeko eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena.- Eskari horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari egindako baimen eskaria aurkezten du, honako datuekin:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- Egurraren jabea: J.I.I
- Lekua (Katastroa): Mañu auzoa, 7. Poligonoa: 168 eta 191 partzelak.
- Egur kopurua: 163 metro kubiko

Hirugarrena.- Udal teknikariek erabiliko diren bideak ikustatu ondoren, argazkiak atera dituzte, eta udal arkitektoaren txostena dago espedientean.

Laugarrena.- Aprobetxamenduaz baliatzen direnek (jabeek) edozein kasutan, bermatu egin beharko dute bidearen egoera zuzena.

Bosgarrena.- Aprobetxamenduaren jabeak, udalak agintzen dituen neurriak hartu beharko ditu.

Seigarrena.- 2026ko ekainaren 2an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- 2020ko urtarrilaren 31n izandako Bermeoko Osoko Bilkuran, Bermeoko Udalaren jabetzapeko edo arduralaritzapeko bideen aprobetxamendu bereziko araua onartu zen (BAO 2020-03-26). Horren hirugarren artikulua arabera:

“Aurretiazko udal lizentzia lortzea beharrezkoa izango da, Udal titularitate edo administraziopeko bideak erabiltzeko.

Zuhaitzak aterako diran lurretako jabeak, edo haren orde, kontratariak edo garraiatzaileak eskatuko dau lizentzia.

Datu honek agertuko dira eskarian:

- h) Eskatzailea, kontrataria edo garraiatzailearen nortasun datuak.*
- i) Garraiketarako erabiltzen diren ibilgailuen datuak, matrikula, egingo den ostera kopurua, osterrako garraiatuko den zama zehatzuz eta egingo den ibilbidea tokiko planoan adieraziz.*
- j) Garraiatuko den zamaren bolumena estéreo edo metro kubikoetan.*
- k) Garraiketak hasiko eta amaituko diren egunak.*
- l) Materialea nonbait bilduko bada, non izango den.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221
Data: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



m) Materialaren jatorria dagoen mendiaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.

n) Zuhaitzak edo zuhaitziak mozteko baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana (Bizkaiko Foru Aldundia, Urdaibai Erreserbako Patronatoa, eta abar).”

Gure kasuan, honakoak aurkeztu ditu interesdunak:

- Eskatzailea: C.T.P.P (**4053G)
- Ibilgailuak: 3 ejeko kamioiak, ondorengo matrikula zenbakidunak: 6739JMS, 3802FZH eta BI-7851-CT.
- Zamaren bolumena: 163 metro kubiko.
- Hasiera eta amaiera epeak: 2026ko maiatza-abendua.
- Materiala biltzeko tokia: Ez dago.
- Materialaren jatorria: Mañu auzoa, 7. Poligonoa: 168 eta 191 partzelak.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena: Ez da aurkeztu, baimen eskaeraren erregistro ziurtagiria baino ez.
- Espezia: Pino insignis.

Bigarrena.- Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauak 63. artikuluan xedatzen duenez, katalogatu gabeko mendi publikoen eta babesleak ez diren partikularren baso-aprobetxamenduek Nekazaritza Sailaren alde aurreko baimena beharko dute. Sail horri dagokio aprobetxamenduari dagozkion eragiketak behar bezala gauzatzea ahalbidetzen duten baldintza teknikoak ematea, bai eta zuhaitziak birsortzen laguntzeko beharrezkoak diren neurriak adieraztea ere.

Era berean, 64. Artikulua araberá, honakoak izango dira BFAk lizentziak emateko baimenak:

- Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztutako espezieekin populatutako mendi eta baso eremuak direnean: Baimena eskatu denetik 20 egun balioduneko epean, ebazpenik eman ez den kasuetan, lizentzia emana ulertuko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221
Data: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



- Aurrekoen barnean zehaztutakoak ez diren beste espezie batzuekin populatutako mendien kasuan: Baimena eskatu denetik 60 egun balioduneko epean, ebazpenik eman ez den kasuetan, lizentzia emana ulertuko da.

Gure kasuan, ez da Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena atxikitu, baimena lortzeko eskaeraren erregistro ziurtagiria baino ez. Epeei dagokienez, 60 egun baliodun igaro dira dagoeneko. Hori dela eta, lizentzia honek ez du baliorik izango Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena edo ebazpenik jaso gabe 60 egun baliodun igaro direnaren zinpeko aitormena aurkeztu ezean.

Bigarrena.- Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.a) artikuluan jasotakoaren arabera, lizentzia emoteko ahalmena alkateari dagokio, baina 2026ko otsailaren 26ko 1131 Zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioaren ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetuta dago.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko urtarrilaren 28an, C.T.P.P (***4053G) Mañu auzoko 7. Poligonoko 168 eta 191 partzeletan zuhaitzak mozteko eta erauzteko egindako baimen eskaria onartzea.

BIGARRENA.- Interesdunari ohartaraztea 1.825,50 euroko fidantza jarri behar duela lanekin hasi aurretik, horren ezean, lizentzia emangabetzat joko baita.

HIRUGARRENA.- Lizentziak indarra izan dezan honakoa aurkeztu beharko da udalean: Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena edo ebazpenik jaso gabe 60 egun baliodun igaro direnaren zinpeko aitormena.

LAUGARRENA.- Interesdunari ohartaraztea honako baldintzen betebeharra:

BESTE BALDINTZA BATZUK.-

1. Ezin da erabili:

- Har ibilgailurik.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221

Fecha: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
- Errodadura bandadun ibilgailurik.
- Geihenezko orotarako pisua 26 tonakoa baina handiagoko ibilgailuri eta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.
- Ibilgailu astunen zirkulazioa, bereziki, lurra, egurra, apeak eta beste material batzuk garraiatzeko erabilitakoaren baimena ematea Udalaren esku geratzen da, beti ere, uneko eguraldiaren arabera.

2. Bideen garbiketa:

- Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamendua irauten duen bitartean beharrezkoan izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostuan haien kontura izanik.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute, bideotatik zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideotan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurra, harriak eta abar ere baztertu egin beharko dituzte bidetik segidan.

Materialen karga aprobetxamenduaren terreno barruan egin beharko da, eta inoiz ere ez, udalaren errepide gainean.

3. Konponketa lanak:

- Txosten teknikoak ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanok egiteko epea jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketan egin izango ez balira, Udalak berak egingo dio zeregin honi haren kontura, kostua alde zuzenetik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



nahikoa izan ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpontzezinak balira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalari.

Udal bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen bidezko banaketa egingo da.

4. Bitartekaritza, itunebidea eta arbitraia:

- Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta, Udalaren eta erabiltzailearen artean ez balego adostasunik, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna eta kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziotatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

5. Harrobiak, mehatz ihardurak eta lurrak lekuz aldatzea:

- Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurrak lekuz aldatzeko erabiltzen badira, iharduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimendu ibilbide guztian arduratuko direnak.
- Aldiz-aldika bideok ikustatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoak, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako empresa horrek ordaindu beharko dituzte.

6. Aprobetxamenduaren epea:

- Gehienez ere, maiatzetik urrira arte (biak barne) jardun ahalko da.

6.- 2026.URTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA. ARRAUN ELKARTEA.

Xedea

Arraun elkartearekin 2026. urteko hitzarmena sinatzea eta dagokion gastua onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren 2026. urterako aurrekontuetan, Arraun Elkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen dau.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28. Artikuluaren arabera, dirulaguntza biderateko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Hitzarmenaren helburua, arraun jarduerak bultzatu eta babestea da Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoen kirola dalako.

Laugarrena: 2026eko apirilaren 27an, Kirol Saileko zuzendariak justifikatze memoria egin du.

Bosgarrena: 2026ko maiatzaren 14ean, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin du.

Seigarrena: 2026ko maiatzaren 28an, Kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena espedientean gehitu du. .

Zazpigarrena: 2026ko maiatzaren 29an, Kirol Saileko zuzendariak erabaki proposamena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2026ko aurrekontuetan Arraun Elkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jaso dau eta elkarte honegaz hitzarmena egiteko proposamena.

Bigarrena: finantzatuko diren gastuak formazioa, baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak, elkarteko ohiko ekintzak, arraunaren difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxikipena dauka RC 2026/377.

Laugarrena: Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986



Sinadurea eta data



EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua hartu dira kontutan.

Bosgarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluen b), f) eta r) eta s) atalen arabera, alkateari jagokon arren, 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko arraun elkartearekin 2026. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: aurrekontuko 01600-34100-481.01.25 partida ekonomikoaren pentzura, Bermeoko Arraun Elkarteari 44.800 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %75a, hau da, 33.600 € (O) eta %25a, hau da, 11.200 €, diru-laguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskararen ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emateko baldintzak bete behar ditu diru-laguntzaren jasotzaileak.

BOSGARRENA: Interesdunari erabakiaren barri ematea, hitzarmena sinatu dezan.

SEIGARRENA: Erabaki honen barri Idazkaritzari, Ekonomia, Kontabilitateari eta Diruzaintzari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalan argitaratzeko agindua ematea Kirol Sailari.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Datea: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen barri ematea.

7.- 2026. URTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA. FUTBOL TALDEA.

Xedea

Futbol taldearekin 2026. urteko hitzarmena sinatzea eta dagokion gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren 2026. urterako aurrekontuetan, Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen dau.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28. Artikuluaren arabera, dirulaguntza biderateko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Hitzarmenaren helburua, futbol jarduerak bultzatu eta babestea da Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoen kirola dalako.

Laugarrena: 2026ko apirilaren 27an, Kirol Saileko zuzendari andreak justifikatze memoria eman du.

Bosgarrena: 2026ko maiatzaren 14ean, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin du.

Seigarrena: 2026ko maiatzaren 28an, Kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

Zazpigarrena: 2026ko maiatzaren 29an Kirol Saileko zuzendariak erabaki proposamena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2026ko aurrekontuetan Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jaso dau eta elkarte honegaz hitzarmena egiteko proposamena.

Bigarrena: finantzatuko diren gastuak formazioa, baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak, elkarteko ohiko ekintzak, futbolaren difusioa eta sustapena egiteko

17



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221

Data: 10/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



jarduerak eta programak.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxikipena dauka RC 2026/376.

Laugarrena: Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua hartu dira kontutan.

Bosgarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) eta s) atalen arabera, alkateari jagokon arren, 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko futbol taldearekin 2026. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: aurrekontuko 01600-34100-481.01.24 partida ekonomikoaren pentzura, Bermeoko Futbol Taldeari 28.000 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %75a, hau da, 21.000 € (O) eta %25a, hau da, 7.000 €, diru-laguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskararen ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emateko baldintzak bete behar ditu diru-laguntzaren jasotzaileak.

BOSGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261477221
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24		Data: 10/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



SEIGARRENA: Erabaki honen barri Idazkaritzari, Ekonomiari, Kontabilitateari eta Diruzaintzari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen argitaratzeko agindua emotea Kirol Sailari.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen barri emotea.

8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

9..- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260609_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "**Tokiko Gobernu Batzarra 09-06-2026**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditate elektronikoa erantsitako dokumentu elektronikoen bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

0b51bab2b4789245491a06f64a6f2b75f91b6e5673ff7a2c1c842a4e4a147f50

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur helbide honetako atari pribatuan:



<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>

Orrri oinean sinatzaileak eta datak

20

CSV: 07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00168A6500N5L3T9Y9Q6Z0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 10/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 10/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 10/06/2026 11:48:24

DOCUMENTO: 20261477221

Fecha: 10/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

